

XEDAPEN OROKORRAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

2972

98/2026 DEKRETUA, ekainaren 16koa, Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen dekretua aldatzen duena.

Dekretu honen xedea da Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua aldatzea.

Erregelamenduzko arau hau ematen da Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen III. tituluaren aurreikusitako babes eta laguntza integraleko sistema gauzatzeko eta garatzeko aldera. Titulu horrek esparru juridikoa ezartzen du ekintza terroristaren ondoriozko kalteen erreparaziorako prestazioak eta neurriak antolatzeko. Babes- eta laguntza-sistema integral horrek biktimekiko elkartasun-printzipioa garatzen du, eta, horren arabera, botere publikoek terrorismoaren biktimei erreparazio eraginkorra eta integrala ematea sustatuko dute, itzultzeko, kalte-ordainak emateko, birgaitzeko, arreta emateko eta gogobetetze moralak lortzeko neurriak ezarriz.

Aipatutako 4/2008 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, botere publikoek arlo horretan egiten duten jarduketara biktimaren eskubideak aitortzera bideratzen da, eta, ahal den neurrian, biktima kaltearen aurreko egoerara itzul dadin saiatzera, haren askatasuna, nortasuna eta familia-, gizarte- eta politika-bizitza berrezartzen laguntzera, pertsona eta langile moduan baldintza egokietan itzul dadin sustatzera, eta, biktimaren egoeraren arabera, hari bizkortasun handienarekin prestazioetarako irisgarritasuna bermatzera. Era berean, prozeduren instrukzioa eta ebazpena zenbait irizpideren arabera arautu behar dira: biktimen aldeko tratua; bizkortasuna eta beharrezkoak ez diren izapideak saihestea; berehalakotasuna biktimekiko harremanetan, eta erakundeen arteko lankidetzak.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen dekretuaren aplikazioan bildutako esperientziak agerian utzi du hobekuntzak egin behar direla biktimen errealitateari erantzun eraginkorragoa eta egokiagoa emateko, bereziki terrorismoaren biktimek tratamendu psikologikoak, psikosozialak eta psikopedagogikoak jaso ahal izango dituztela bermatzeko. Hobekuntza horien helburua da administrazio-jarduna optimizatzea eta erakundeek biktimen beharrei erantzun arin eta eraginkorra emateko duten gaitasuna indartzea.

Egindako aldaketan helburua da terrorismoaren biktimek tratamendu psikologiko, psikosozial eta psikopedagogikoak benetan eskuratzen dituztela bermatzea, bai eta oinarri arautzaileak Dirulaguntzen Araubidea Arautzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Eusko Jaurlaritzaren egitura berrira egokitzea ere. Egitura hori ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak definitu zuen (18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena). Halaber, araudia eguneratu egin da, indarrean dauden xedapenekin lerrokatzeko. Azken batean, emandako zerbitzuen arau-koherentzia, segurtasun juridikoa eta kalitatea bermatzen ditu erreforma honek.

18/2024 Dekretuaren 20.1 h) artikuluan ezarritakoaren arabera, Justizia eta Giza Eskubideen Sailari dagokio biktimen eta memoriaren politikak zuzentzea eta koordinatzea.

Ondorioz, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko ekainaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren zenbait esapide aldatzea.

Esapide hauek ordeztuko dira:

a) «Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza» esapidearen ordeztuz, hau erabiliko da: «Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritza».

b) Bestalde, «www.euskadi.net» esapidearen ordeztuz, hau erabiliko da: «www.euskadi.eus».

c) Gaztelaniazko «interesado» edo «interesados» esapidearen ordeztuz «persona interesada» edo «personas interesadas» jarri behar da.

Bigarren artikulua.— Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 3. artikulua aldatzea —hau da, «Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza» artikulua—.

Aldatu egiten dira 3. artikulua 1. eta 4. apartatuak, eta honela idatzita geratuko dira:

«1.— Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritza da Euskal Autonomia Erki-degoko administrazio orokorraren organo eskuduna Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean araututako erreparazio- eta laguntza-prestazioen eskaerak koordinatzeko eta, hala badagokio, izapidetzeko, eta, horretarako, lege horren 25.1 artikuluan aurreikusitako eskumenak dagozkio».

«4.— Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio dekretu honen kapitulu eta apartatu hauetan aurreikusitako erreparazio- eta laguntza-prestazioen eskaerak izapidetzea:

a) II. kapituluko kalte materialak ordaintzeko jarduketak;

b) III. kapituluko kalte materialak prebenitzeko laguntzak;

c) IV. kapituluko laguntza juridikorako laguntzak;

d) 22. artikuluan jasotako protesiak ezartzeko gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak eta V. kapituluko 23. artikuluko eta hurrengoetako profesional pribatuek emandako tratamendu psikologikoa finantzatzeko laguntzak;

e) VI. kapituluko 29. artikuluan jasotako beste gastu akademiko batzuk ordaintzeko laguntzak;

f) 37. artikuluan aurreikusitako behin-behineko etxebizitzaren alokairu-gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak».

Hirugarren artikulua.— Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 12. artikulua aldatzea —hau da, «Eskumena» artikulua—.

Aldatu egiten da 12. artikulua, eta honela idatzita geratuko da:

«12. artikulua.— Eskumena.

Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio kapitulu honetan araututako kalte-ordainak eta erreparazioei buruzko prozedurak izapidetzea.

Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrari dagokio prozedura horien ebazpena ematea.

Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean xedatutakoaren arabera egingo da kalte-ordainak eta erreparazioen ordainaketa».

Laugarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 13. artikulua aldatzea –hau da, «Instrukzioa» artikulua–.

Aldatu egiten dira 13. artikulua 2. eta 4. apartatuak, eta honela idatzita geratuko dira:

«2.– Nahitaezko datu edo agiriren bat falta denean, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, adieraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin».

«4.– Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzak prozedura modu egokian gauzatzeko behar duen beste edozein informazio eskatu ahal izango die polizia-agintariei, beste administrazio publiko batzuei, Fiskaltzari edo jurisdikzio-organoei, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako mugen barruan. Erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez».

Bosgarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 15. artikulua aldatzea –hau da, «Ebazpena» artikulua–.

Aldatu egiten dira 15. artikulua 1. eta 3. apartatuak, eta honela idatzita geratuko dira:

«1.– Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak ebatziko du laguntza-eskaera, prozeduraren instrukziotik eta egindako kalteen baloraziotik ondorioztatzen dena kontuan hartuta, eta, haren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari».

«3.– Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ebazpena baieslea dela ulertuko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Seigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 16. artikulua aldatzea –hau da, «Segurtasun-sistema ezartzea» artikulua–.

Aldatu egiten da 16. artikulua 2. apartatua, eta, «Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzaren organo eskuduna» esapidearen ordean, hau erabiliko da: «Segurtasun Saileko organo eskuduna».

Zazpigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 17. artikulua aldatzea –hau da, «Eskabideak» artikulua–.

Aldatu egiten da 17. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratuko da:

«2.– Nahitaezko datu edo agiriren bat falta denean, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, adieraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin».

Zortzigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 18. artikulua aldatzea –hau da, «Instrukzioa» artikulua–.

Aldatu egiten da 18. artikulua 2. apartatua, eta, «Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzako organo eskuduna» esapidearen ordean, hau erabiliko da: «Segurtasun Saileko organo eskuduna».

Bederatzigarren artikulua.— Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 19. artikulua aldatzea —hau da, «Ebazpena» artikulua—.

Aldatu egiten dira 19. artikulua 1. eta 3. apartatuak, eta honela idatzita geratuko dira:

«1.— Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak ebatziko du laguntza-eskaera, prozeduraren instrukziotik ondorioztatzen dena kontuan hartuta, eta, haren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari».

«3.— Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ebazpena baieslea dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hamargarren artikulua.— Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 20. artikulua aldatzea —hau da, «Sorospen juridikoa» artikulua—.

Aldatu egiten da 20. artikulua 7. apartatua, eta honela idatzita geratuko da:

«Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskaeraren ebazpena.

Haren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari.

Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ebazpena baieslea dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hamaikagarren artikulua.— Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 22. artikulua aldatzea —hau da, «Protesiak jartzeak sorrarazitako gastuen finantziazioa» artikulua—.

Aldatu egiten da 22. artikulua 4. apartatua, eta honela idatzita geratuko da:

«4.— Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskaeraren ebazpena. Haren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari.

Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ebazpena baieslea dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hamabigarren artikulua.— Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 23. artikulua aldatzea —hau da, «Laguntza psikologikoaren eremua» artikulua—.

23. artikulua 2. apartatuari bi letra gehituko zaizkio, eta 4. apartatua aldatuko da. Honela idatzita geratuko dira:

«2.— 4/2008 Legearen 19. artikuluan aipatzen diren profesional pribatuek emandako tratamendu psikologikoa finantzatzeko laguntza ekonomikoak eskuratzeko, eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Tratamenduaren beharra Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean gauzatutako ekintza terroristen ondorio izatea, edo, kanpoan gertatu badira ere, eragindako pertsonak egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eta

b) Tratamendua beharrezkoa dela egiaztatzea, osasun-zerbitzu publikoko medikuak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez.

Laguntza ekonomikoa tratamenduaren aurretik eta zuzenean emango zaio onuradunari, eta agindutako tratamenduaren kostua ordainduko du, 3.500 euroko gehieneko mugarekin tratamendu indibidualizatu bakoitzeko, hargatik eragotzi gabe emandako laguntza modu ezohikoan handitu ahal izatea diagnostiko medikoaren bilakaera ikusita.

Laguntza ekonomikoa mugaeguneratutako hiruhilekoka jasoko da, gastuen fakturak eta ordaindutako ordainsariak aurkeztu ondoren. Aurrekoa gorabehera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) jasotzen duten edo bereziki zaugarriak diren pertsonen kasuan, laguntza ekonomikoa zuzenean ordaindu ahal izango zaie laguntza psikologikoa ematen duten profesionalei, laguntza psikosoziala eta psikopedagogikoa barne.

Zaugarritasun-egoera oinarrizko gizarte-zerbitzuek emandako txostenaren bidez egiaztatu ahal izango da».

«4.– Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskaeraren ebazpena. Haren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari.

Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ebazpena baieslea dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hamahirugarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 28. artikulua aldatzea –hau da, «Ikasketa-beka eta –laguntzei buruz» artikulua–.

Aldatu egiten da 28. artikuluko 2. apartatua, eta, «Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa» esapidearen ordeztu, hau erabiliko da: «Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa».

Hamalagarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 29. artikulua aldatzea –hau da, «Beste gastu akademiko batzuk ordaintzeko laguntzak» artikulua–.

Aldatu egiten da 29. artikulua 1. apartatua, eta, «Herrizaingo Saila» esapidearen ordeztu, hau erabiliko da: «Giza eskubideen arloan eskumena duen saila».

Hamabosgarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren VIII. kapituluaren izenburua aldatzea.

Aldatu egiten da «VIII. Kapituluaren - Funtzio Publikoaren eremua» kapituluaren izenburua, eta honela idatzita geratuko da: «VIII. Kapituluaren - Euskal Enplegu Publikoaren eremua».

Hamaseigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 31. artikulua aldatzea –hau da, «Enplegurako orientazio eta prestakuntzaren arloa» artikulua–.

31. artikulua 1. apartatuan, «Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza» esapidearen ordeztu, hau erabiliko da: «Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritza».

Hamazazpigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 33. artikulua aldatzea –hau da, «Funtzio Publikoa» artikulua–.

Aldatu egiten dira 33. artikulua izenburua eta 1. eta 3. apartatuak, eta honela idatzita geratuko dira:

«33. artikulua.– Enplegu publikoa.

1.– Eskubide hauek izango dituzte ekintza terroristen ondoriozko kalte pertsonal fisiko edo psikofisiko bereziki larrien biktima izanik Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 3. artikuluan zehaztutako eremuan sartzen diren langileek, bai eta irakasleek eta osasun-arloko estatutupeko langileek ere, baldin eta horretarako premia arrazoituta egiaztatzen badute, haien izaera eta inguruabar partikularrak kontuan hartuta:...».

«3.– Ebazpena emateko eskuduna den giza eskubideen arloko sailburuordetzako titularrak eskatzailearen inguruabarrei buruzko irizpena eskatuko dio giza eskubideen arloan eskuduna den zuzendaritzari. Txosten hori loteslea izango da inguruabar horiek gertatzen diren ala ez zehazteari dagokionez».

Hemezortzigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 36. artikulua aldatzea –hau da, «Etxebizitza libreak» artikulua–.

Aldatu egiten da 36. artikulua, eta honela idatzita geratuko da:

«Ez dira okupatutzat joko 35. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonen ohiko etxebizitza libreak, «Bizigune» Etxebizitza Hutsaren Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, baldin eta giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzak txosten loteslea ematen badu onuradunaren izaerari buruz».

Hemeretzigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 37. artikulua aldatzea –hau da, «Behin-behineko etxebizitza alokatzeko gastuak» artikulua–.

Aldatu egiten dira 37. artikuluko 2., 5. eta 6. apartatuak, eta honela idatzita geratuko dira:

«2.– Jarduera terroristekin lotutako jazarpena, mehatxuak edo hertsapena jasaten duten pertsona fisikoak izan daitezke laguntza honen onuradunak, segurtasun-arloan eskumena duen sailak egiaztatzen duen moduan».

«5.– Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzak ofizioz egingo ditu espedienteak ebazteko beharrezkoak diren instrukzio-egintzak, eta, nolana ere, segurtasun-arloan eskumena duen sailari eskatuko dio eskatzaileak jarduera terroristekin lotuta izandako jazarpen-, mehatxu- edo hertsapen-egoeraren baten berri eman dezala. Txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da, eta gehienez ere 10 eguneko epean egin beharko da.

6.– Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskabideari buruzko ebazpena.

Epe hori igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera administrazio-isiltasunez baietsi dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hogeigarren artikulua.– Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 38. artikulua aldatzea –hau da, «Ezohiko laguntzak» artikulua–.

38. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatuko dira, eta, «Herrizaingo sailburuari» esapiderearen ordez, hau erabiliko da: «Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuari».

Hogeita batgarren artikulua.– Esapide bat aldatzea Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzeko azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan eta azken xedapenetako lehenengoan.

Aldatu egiten dira bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak eta azken xedapenetako lehenengoa, eta, «Herrizaingo Saila» esapiderearen ordez, hau erabiliko da: «Giza eskubideen arloan eskumena duen saila».

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 16an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.